



**H**ABEk kreditazio sistema berria sortu du euskara maila egiaztatzeko. Adierazi duenaren arabera, EGA baino hizkuntz eskakizun txikiagoa izango duten beste bi agiri eskaini dizkie euskara ikasleei: Lehen mailakoa, eta Bigarrenkoa (hirugarrena da EGA). Agiriok, bestalde, Administrazioan, Osakidetzan, Ertzaintzan edo Justizian erabiltzen diren hizkuntz eskakizunen parekoak izango dira. Maila berriak egiaztatzeko lehenengo azterketak ekainean bertan egingo dira, euskaltegietan.



**A**pirilaren 3an hil zen Polixene Trabudua (Sondika, 1912 – Zeberio, 2004). Abertzale handia izan zen eta euskararen eta euskal kulturaren aldeko emakume sutsua. Emakume Abertzale Batzako kide izan zen eta

mitinlari nabarmendu zen Espainiako Bigarren Errepublikaren garaian, Estatutuaren aldeko kanpainen, Haydée Agirre, Julene Urzelai eta Maria Teresa Zabalarekin batera. Gerra zibilaren ondorioz, erbesterako bidea hartu zuen. Gerora, Polixene Trabuduak bi memoria-lan argitaratu zituen: *Artículos de amama* (1991) eta *Crónicas de amama* (1997).

Polixene Trabuduaren biografiaren berri izateko, jo Bidegileak bildumara:

www.euskadi.net/euskera



**2**004ko martxoaren 26an, Lezaman eginitako osoko bilkuran, "Euskalkien erabilez. Irakaskuntzan, Komunikabideetan eta Administrazioan" izeneko adierazpena onartu zuen Euskaltzaindiak. Lehenik, euskalkien eta euskara batuaren erabilera esparruak eta joko-arauak aztertzen ditu adierazpenak; eta, bigarrenik, hiru arlo horietan kontuan hartu beharreko irizpideak finkatzen ditu. Adierazpena osorik irakurtzeko: [www.euskaltzaindia.net](http://www.euskaltzaindia.net).



**Euskaltzaleen Biltzarraren Mendeurrena,**

horixe da Sabino Arana Kultur Elkargoak berriki argitaratu duen liburuaren izenburua. 1901 eta 1902an euskaltzaleen biltzarrak egin ziren Hendaian eta Hondarribian; bertan

sortu zen izen bereko elkarte ere. Mendeurrena ospatuz, 2001. urtean Sabino Arana Kultur Elkargoak jardunaldiak burutu zituen euskararen biziraupenaren inguruan. Oraindik orain, berriz, partehartzaileek jardunaldi haietan egindako hitzaldiak eta aurkeztutako txostenak bildu eta *Euskaltzaleen Biltzarraren Mendeurrena* liburu eman du argitara kultur elkargoak.



**E**uskalgintzari eta komunikabideei dagozkien deialdiak egin eta berrietara biltzeko epea bete ondoren, honako hau da, labor adierazita, jasotako eskabide-orrien zenbatekoa: euskalgintzari dagokion deialdira 319; komunikabideei dagokienera, bestalde, 114 etorri da. Bai batari bai besteari dagokion ebazpena uztailaren amaiera aldean jakinaraziko da.

lazko urteari dagokionez zera esan behar da: euskalgintzari dagokion deialdian 310 eskabide-orri jaso zela; horietatik 144k hartu zuen zegokion diru-laguntza.

Guztira 1.210.352 euro banatu zen. Komunikabideen sailean 108 eskabide jaso zen eta horietatik 90 diruz lagundu. Orotara, diruz lagundutako komunikabideek 3.837.693 euro jaso zuten.



**A**pirilaren 18an 100. atala bete zuen *Teknopolis* saioak ETBn.

Elhuyar Fundazioak egiten du zientzia eta teknologiaren dibulgazio-programa, ETBrekin lankidetzan. 100 saiotan, 500 zientzialari eta ikertzaile agertu dira programan, eta euskal ikerketaren, berrikuntzaren eta garapenaren alorreko 200 proiektu inguru aurkeztu dira. *Teknopolis* 1999an jaio zen eta, harrezkero, urtero-urtero ageri da ETBn.



**X**XIII. Udako Ikastaroak – XVI. Europar Ikastaroak egingo dira Donostian ekainetik irailera bitarte. Aurtengo egitarauak bi berrikuntza dakartza: batetik, "Hobeto bizitzeko ikasten" izenekoa eta, bestetik, Europari buruzko zikloak. Berri gehiago Interneten: [www.sc.ehu.es](http://www.sc.ehu.es).

Bestalde, Udako Euskal Unibertsitateak (UEU) ere, udako ikastaroen berri eman du. Biarritzen –uztailaren 5etik 9ra–, eta Iruñean –hil bereko 19tik 23ra–, egingo dira. Ikastaroei buruzko berri gehiago: [www.ueu.org](http://www.ueu.org).

**armiarma**

**S**usa argialetxeak, Kultura Sailaren laguntzaz, Literaturaren Zubitegia izeneko egitasmoa abiarazi du web gunean ([www.armiarma.com](http://www.armiarma.com)). Guztira, 645 idazleren lanak jarri ditu sarean, 3.205 liburu baino gehiago, 1.436 aipamen, 2.041 lotura eta 687 literatur kritika.



**J**uan Garmendia Larrañagaren *Hiztegi Etnografikoa* prestatu dute CD-ROMean Garmendia Larrañagak berak eta Xabier Mendiguren Bereziartuk. Hiztegiak, duela mende erdi bat baino gehiago etnografoak Euskal Herrian zehar egiten hasi zen ikerketa du oinarri. Egileak Euskal Herriko txoko guztietan jardun du euskarazko lexiko etnografikoa biltzen. Hiztegi etnografikoak 2.500 sarrera ditu eta, sarrera bakoitzeko, honako datuak zehazten ditu: hitzaren deskribapena, sinonimoak, sailak (Baserrria, Burdingintza, Eguraldia, Erljioa...), hitza bildu zeneko herria, eta irudia. Ikastolen Elkarteak argitara emandako hiztegi hau HPS-ren diru-laguntzari esker kaleratu da.



**E**uskal Herriko Unibertsitateak errektore berria du apirilaren lehenengo egunetik: Juan Ignacio Pérez Iglesias. 1960an Salamancan jaiotako bilbotar hau euskaldun berria da eta EHUko irakasle 1985az gero. Fisiologia katedraduna da eta Euskara errektoreorde izan zen Pello Salaburu errektore izan zen aldirian. 2000. urtean, Euskara Normalizatzeko bigarren plana aurkeztu zuen.



eta gaurko zein bihar-etziko belaunaldiak gure hizkuntzaz arduratu diren andre-gizon saiatuak ezagutu ditzaten ere nahi da.

Biografiok testuz eta argazki egokiz horniturik datoz eta guztiz dira dibulgaziozkoak, edonorentzat interesgarri eta erabilgarri. Argitaratu ahala banatzen dira euskaltegi, liburutegi eta kultur etxeetara.

33 karpeta kaleratu dira eta, guztira, 132 pertsonaren bizitza eta lanak jaso dira orain arte.

Paper formatuan ez ezik, Internet bidez ere kontsulta daitezke Bidegileak bildumako lanak [www.euskadi.net/euskara](http://www.euskadi.net/euskara) helbidean.



**1**00 urte dira Telesforo Monzon (Bergara, 1904 – Baiona, 1981) jaio zela. Politikari eta idazle izan zen. Hainbat antzerki-lan idatzi zituen (*Odol Bideak; Menditarrak; Harpeko bozkarioa; Behorren ostikoa; Maria Lorka*), zenbait

poema-liburu (*Urrundik; Gudarien eginak*), eta oso ezagun izan ziren makina bat kanta (*Lepoan hartu; Itziarren semea; Batasuna...*). Euskaltzain urgazle izendatu zuten 1966an.

Haren biografiaren berri izateko, jo Bidegileak bildumara ([www.euskadi.net/euskera](http://www.euskadi.net/euskera)), edo [www.armiarma.com/literaturarenzubitegia](http://www.armiarma.com/literaturarenzubitegia) helbidera.



**E**uskal Irakaslegoaren 25. urteurrena ospatu du Deustuko Unibertsitateak, hau da, euskararen irakaskuntza unibertsitatean abiarazi zuen zentroaren urtemuga. Lanean hasi zenetik, 25.000 lagun baino gehiagok ikasi du bertan. Urteurrena dela eta, Dionisio Aranzadi, Patxi Altuna eta Gotzon Garate omendu zituen Deustuko Unibertsitateak, euskararen eta hizkuntzaren irakaskuntzaren alde egindako lan handia eskertzeko.


**O**ndoko mapak Euskal Herriko biztanleen hizkuntza-gaitasuna zertan den erakusten digu. EAEko biztanleriaren ia herena (%29,4) elebiduna da eta euskara nahiz gaztelania ongi menderatzen ditu; %11,4k ez du ongi hitz egiten, baina ongi edo nahikoa ongi ulertzen du (elebidun hartzailea). Gainerako biztanleak (%59,2), gaztelaniaz mintzatzen dira, soilik.

Nafarroan, bestalde, hamar lagunetik bat (%10,3) elebiduna da, %6,6 elebidun hartzailea, eta gainontzeko guztiak (%83,1), erdaldun elebakarrak.

Ipar Euskal Herrian, aldiz, lau lagunetik bat (24,7%) elebidun da, hamarretik bat baino gehiago elebidun hartzailea (11,9%), eta gainerakoek (63,4%) frantsesa besterik ez dakite.

Azken urteotan euskarak izan duen bilakaera kontuan hartuta, oso desberdina da egoera lurralde guztietan. Izan ere, euskara nabarmen egiten ari da gora Euskal Autonomia Erkidegoan, behera Iparraldean eta ez gora ez behera Nafarroan.

### Hizkuntza-gaitasuna lurraldearen arabera, 2001 (%)



Iturria: Euskal Herriko Soziolinguistikako Inkesta (2001). Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza. Eusko Jaurlaritzak.

## Hiztegia.net

**H**iztegi guztiak web gune bakar batean jarri ditu Artez Euskara Zerbitzuak [www.hiztegia.net](http://www.hiztegia.net) helbidean. Gune horretan sarean dauden hiztegiarako bideak batu ditu: Elhuyar, 3000 hiztegia, Euskalterm, Euskara-Katalana hiztegia, Euskara-Estoniera, Euskara-Okzitaniera, sinonimoenak... eta, euskarazko hiztegi horiez gain, baita beste hainbat hiztegi erabilgarri ere: Euorodicautom, RAE, edo *Le Grand Dictionnaire Terminologique*.



**A**urten 25 urte betetzen dira Mikel Zarate (Lezama, 1933-1979) hil zenetik eta, urteurrena aitzakia, haren bizitza eta lanak gogora ekarri dira. Hitzaldiak eta bilkurak egin dira eta baita zenbait argitalpen kaleratu ere. Besteak beste, *Etorriaren zorabioz*, Mikel Zarateren poema ezezagunak dakartzan liburua, eta *Gure Mikel*, idazleari buruzko lekukotasunez osatua. Bestalde, Susa argitaletxea Mikel Zarateren obra osoa digitalizatu eta Internet sarean jartzen ari da ([www.armiarma.com/zarate](http://www.armiarma.com/zarate)). Udazkenean, berriz, haren obra osoa biltzen duen CDa plazaratuko dute Lezaman. Mikel Zarateren berri gehiago jakin nahi izanez gero, jo Bidegileak bildumara: [www.euskadi.net/euskera](http://www.euskadi.net/euskera).


**W**[www.euskaraz.tv](http://www.euskaraz.tv), euskara hutsezko lehenengo Internet bidezko telebista sortu du Proyeccion etxeak. Telebista honek euskaraz baino ez du emititzen, gure hizkuntza Internet bidez sustatzeko asmotan. [www.euskaraz.tv](http://www.euskaraz.tv) telebista berriak doako bost kanal eskaintzen ditu eta, ikusteko, nahikoa da modem bidezko Internet konexioa izatea.



Zaldi Ero

**T**oki-izenak alde guztietan eta erruz agertzen dira jendearen eguneroko bizimoduaren (elkarrizketa arruntetan, komunikabideetan, mapetan, errepideetako errotuluetan, etab.). Horren jakitun, Hizkuntza

Politikarako Sailburuordetza (HPS) aspaldi ari da lanean EAEko biztanle-entitateen izenak Euskaltzaindiak finkatutako erara ofizialtzeko. Ahalgin horretan, HPSk laguntza eskaintzen die izen ofiziala aldatu nahi duten biztanle-entitateei, eta oraingoan beste urrats bat egin du: aurrerantzean, interesdunek Kultura Sailaren web gunean aurkituko dituzte biztanle-entitateen izenak ofizialtzeko jarraitu beharreko prozeduren laburpenak, herrialdeka antolatuta eta, Arabaren kasuan, administrazio-batzarren berezitasunak kontuan hartuta. Hori guztia kontsultagai egongo da honako helbide honetan: [www.euskadi.net/euskara\\_toponimia](http://www.euskadi.net/euskara_toponimia).



**H**izkuntza Politikarako Sailburuordetzak, Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiak, batetik, eta, bestetik, Euskadi Informazio Gizartean Planak ezarritakoaren ildotik, hainbat lan burutu ditu azken urteotan, EJIJerekin lankidetzan, euskara eta teknologia berriak uzartzan dituzten aplikazio informatiboen alorrean. Horietako batzuk saretik doan deskarga daitezke [www.euskadi.net/euskara\\_soft](http://www.euskadi.net/euskara_soft) helbidetik: Xuxen zuzentzaile ortografikoaren bertsio desberdinak, software libreko produktuak (Mandrake Linux sistema eragilea eta OpenOffice.org bulegotika-paketea), formatu desberdinetako euskarazko testuak digitalizatzeako OCR aplikazioa, enpresen kudeaketarako SAP softwarearen hainbat modulu eta Word-en eta Interneten integratzen den Elhuyar hiztegiaren plugin-a.



**E**uskararen **kalitatea** diogunean zer esan nahi dugun argitzea eta zehaztea izan da 2003. urtean

Euskararen Aholku Batzordearen Kulturgintza-aren eta Komunikabideen Batzorde-atalean izandako hausnarketaren abiapuntua. Kike Amonarriz, Andoni Egaña eta Joxerra Garzia izan dira oinarritzko txostenaren egileak. Lanak bost atal ditu: *Aurrekariak: kantitatek kalitatea; Kalitatea zertan den; Hizkuntz kalitatearen inguruko datuak eta hausnarketak; Hizkuntz kalitatean eragiten duten esparruak; eta, azkenik, Proposamenak eta lan ildoak.*

Proposamenak, hainbat esparrutan bildu dira: motibazioa, familia eta ingurune hurbila, hezkuntza sistema, hedabideak, teknologia eta hedabide berriak, euskarazko edukien sorkuntza, hedapena eta gizarteratzea, besteak beste.

Batzorde-atalean izandako eztabaida eta kideek egindako ekarpenak lana osatzeko eta aberasteko lagungarri izan dira. Oinarritzko txostena osatu ondoren, horren zabalkundeari eta hedapenari helduko zaio.



**H**izkuntza Politikarako Sailburuordetza hizkuntza politikaren inguruko oinarritzko ikastaroak ari da prestatzen. Ikastaro hauek EAEko udaletako euskara zinegotzietan zein euskara zerbitzuetan lanean hasi berriak diren teknikariek daude zuzenduta.

Helburua bikoitza izango da: euskara arloko zinegotziek edo/eta langileek beren lana arrakastaz bete dezaten oinarriak ematea, batetik, eta hizkuntzaren normalizazioaren inguruan hartu behar diren erabakiak hartu ahal izateko irizpideak eskaintzea, bestetik.

Lehenengo ikasturterako lau ikasgai begiz jo dira. Euskararen araubidea, Euskararen egoera soziolinguistikoa, Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia, eta, azkenik, EBPNren garapena udaletan.

Teknologia berriek eskaintzen dituzten aukerak erabiliz, nagusiki interneten bidez edota CD-ROM-aren bidez egingo dira ikastaroak, nahiz eta aurrez aurreko saioak ere izango diren. 2004ko ikastaroak uda ostean jarriko dira abian.



**K**oordinaziorako Zuzendaritza kalitatea hobetzeko prozesu baten estandarizazioa burutzen ari da. Prozesu hau Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia toki-entitateetan garatzeko landutako ereduari buruzkoa da.

Horretarako, kalitate-kudeaketa sistema finkatu, dokumentatu eta ezarri du, eta sistema horri eutsi egin nahi dio eta etengabe hobetzeko konpromisoa hartu du UNE-EN ISO 9001:2000 arauaren betekizunak kontuan hartuta.

Ezarri den kalitate-politikaren oinarria eta helburu nagusia bezeroen gogobetetasuna areagotzea da, kalitate-kudeaketa sistema eragin-kortasunez aplikatuz eta etengabe hobetuz, eta bezeroen eskakizunekiko eta aplikatu daitezkeen araudiekiko adostasuna segurtatuz.

Kalitatez lana egin ahal izateko, EBPN toki-entitateetan garatzeko zehaztu den prozeduran parte hartzen duten eragile nagusiak inplikatzeko, ezarritako helburuekin eta prozedurarekin bat etortzea eta elkarlanerako aldeko jarrera izatea ezinbestekotzat jotzen du Koordinaziorako Zuzendaritzak.

EBPN udaletan garatzeko zerbitzuaren bitartez Koordinazio Zuzendaritzak goian aipatutako arauaren arabera kalitate-sistema garatzea, ezartzea eta zertifikatzea izango da kalitatearen bidetik lanean jarraitzeko konpromisoaren adierazgarri.

Euskararen Berripapera zure etxean doan jaso nahi baduzu, jarri gurekin harremanetan:  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza / Donostia-San Sebastián, 1 / 01010 Vitoria-Gasteiz (Araba) / Tel.: 945 01 81 16 • e-posta: [l-Sosoaga@ej-gv.es](mailto:l-Sosoaga@ej-gv.es)